



BIZKAIKO TXAKOLINA **2018**



KONTSEILU ARAUTZAILEA

Lehendakaria:

José Luis Gómez Querejeta, jauna

Lehendakariordea:

Unai Sulibarria Santibáñez, jauna

Batzordekideak

Aritza Antolínez Salvador, jauna

Miren Sorkunde Bikandi Lasa, andrea

Arkaitz Larrazabal Durana, jauna

Pilar Llamosas Orcasitas, andrea

Garikoitz Ríos Urbaneta, jauna

Javier García Fernández, jauna

KONTSEILU ARAUTZAILEAREN EKINTZAK

PINTXO ETA BIZKAIKO TXAKOINAREN UZTARTZE TXAPELKETA IRUÑEAN

Kontseilu Arautzailearen lehentasunen artean nabarmentzekoak dira Bizkaiko Txakolinaren sustapenerako burututako ekintzak, bai bere ohiko esparruan, eta baita merkatu berrietan ere.

Ildo horretan, azaroan zehar, Pintxoen eta Bizkaiko Txakolinaren Uztartze Txapelketa egin zen Iruñean, jendearen erantzun handi eta arrakastatsuekin. Ekimen honen bidez, Bizkaiko Txakolinaren kalitatea ezagutzeko aukera izan zuten kontsumitzaile izango diren hainbat bezero berrik. Sustapen ekitaldi honek hamar eguneko iraupena izan zuen hainbat taberna eta jatetxetan eta erakusketa-dastaketa batekin amaitu zen.

Gure Deiturako hamaika upategik eta Iruñeko ostalaritzako 21 establezimenduk parte hartu zuten. Oso maila altuko pintxoak dastatzeko aukera izan zen, bakoitzari suertatu zitzaion Txakolin marka ezberdinekin bikain bat eginez.

Jarduera berri honetaz gain, Begoñako Ama Birjinaren eguna dela eta ospatzen den Txikiteroen Festan, Bilboko Aste Nagusiko bakailao-lehiaketan eta Muskizeko eta Balmasedako Feriak bezalako ekitaldi gastronomiko, jaiegun eta festa jendetsuetan parte hartu eta lagundu du, baita ere gure Deiturak.

Halaber, Bizkaiko Txakolinak Travellin 'Brothers taldearen kontzertu bat antolatu zuen Mendibileko egoitzan, Doniene egunean.

ATHLETIC CLUB ETA LABORAL KUTXAREKIN HITZARMENAK

Aurten ere, Bizkaiko Txakolinak bere lankidetzeta hitzarmena berritu du Athletic Clubekin, eta, horren arabera, gure Deiturako bi upategi San Mameseko VIP Arean daude Athletic Clubeko lehen taldeak jokatzeko duen partidu bakoitzean. Akordioak Athletic Clubeko bazkideei zuzendutako Bizkaiko Txakolinaren promozio ekintzak aurreikusten ditu.

Beste alde batetik, Laboral Kutxarekin sinatutako hitzarmenaren bidez, Azkuna Zentroan Bizkaiko Txakolina/Laboral Kutxa Foroaren hirugarren edizioa egin zen. Bertan Master of Wine den Pedro Ballesteros eta Amaya Cervera kazetariak parte hartu zuten.

EKITALDI ETA SUSTAPEN EKINTZAK 2019AN

Bizkaiko Txakolinak bere XXVgarren urteurrena ospatzen du aurten. Urteurrena dela eta, hainbat ekitaldi ezberdin antolatuko dira 2019an zehar. Apirilak 11n ospatuko den Bizkaiko Txakolinaren Egunean, mende laurden honetan Jatorrizko Deiturak egin duen ibilbidea erakutsiko duen argazki erakusketa bat aurkeztuko da.

Martxoan Bizkaiko Txakolinak bere lehenengo Bizkaiko Txakolina Saloia antolatuko du Madrileko Arkitektoen Elkargoan. Bertan Deiturako hamahiru upategik txakolin klasikoak eta baita azken urteotako estilo berrienetakoak aurkeztuko dituzte.

Urtean zehar, baita ere, Bizkaiko Txakolina/Laboral Kutxaren laugarren edizioa eta Iruñeako Pintxo eta Bizkaiko Txakolina uztartze txapelketaren bigarren edizioa antolatuko dira.

KLIMATOLOGIAK ASKO OKERTU DU URTEA

2018 urteko uztan ekoiztako txakolinaren bolumena 1.228.858 litrokoa izan da, hau da, aurreko urtearekin alderatuta % 22,87 murriztu da, eta duela hiru urteko uztaren aldean, % 32,67 gutxiago.

Mahasti berrien eraginak (2011 eta 2014 urteen artean landatutako 41 hektarea) hektareako batez besteko produkzioaren jaitsiera konpentsatu du. Hala ere, eta baldintza klimatiko konplexuak direla eta, 2018 urtean ekoizpena murriztu egin da, duela bederatzi urteko uztabolumenera hurbilduz.

2018 urtea bi faktore nagusik markatu dute. Bata, udaberriko eta uda hasierako eguraldi txarra izan da, tenperatura hotz eta egun euritsu askorekin.

Klimatologia horren ondorioz, loratzea atzeratu egin zen, lore-galera handiak izan ziren, eta gauzatzea txarra izan zen. Baldintza txar horiek udako lehen zatian zehar luzatu ziren eta, ondorioz, eraso fungikoak eragin zituzten, bai orrian eta baita mahats mordoetan ere.

Uztailaren amaieran, eguraldia erabat aldatu zen eta euriteak gutxitu ziren arren, zenbait eurite eta kazkabar-zaparrada egon ziren, eta hainbat plantaziotan galerak izan ziren.

Irailak ez ohiko tenperatura oso altuak ekarri zituen, mahatsaren heltze-prozesuan azelerazio handia sortu zutenak eta ondorioz, mahats-bilketa irailaren 20ra aurreratu zen. Urri lehorra eta epela izan zelarik, mahats-bilketa 15 egunetan amaitu zen klimatologia onaren laguntzaz.


Udako bigarren zatiko lehortea handiak eta gauzatze txarraren egarinez mahats pikorrak galdu izanak nabarmen murriztu zituen ekoizpen itxaropenak. Hektareako errendimenduak iaz baino askoz txikiagoak izan ziren eta mahats-eraldaketaren errendimenduak ere murriztu ziren.

1 KOADROA. EKOIZPENAREN EBOLUZIOA (kilo eta litrotan)

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Mahatsa	2.471.098	1.515.782	2.323.190	2.681.329	2.714.984	2.379.989	1.840.236
Txakolina	1.660.814	999.428	1.569.634	1.784.934	1.825.195	1.593.276	1.228.858

Upategiek 3.850 litro ardo berantiar egin dutela adierazi dute eta Bizkaiko Apardun 1.000 litro

Kopuru honetan ez da Foru Aldundiko Upategi Esperimentala sartzen




LANDUTAKO HEKTAREA KOPURUAK IGOERA TXIKIA IZAN DU

Mahasti hektarea kopuruak gorantz jarraitzen du, jabe kopuruak azken urteetako jaiste joeran jarraitu duen bitartean.

Gaur egun mahastizain kopurua 203koa da, eta hektarea landuak 415 dira.

2 KOADROA. MAHASTI LURRALDEEN ETA MAHASTIZAIN KOPURUAREN EBOLUZIOA

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Hektareak	371	373	383	392	396	403	415
Titularrak	223	223	215	212	218	210	203



UPATEGI KOPURUAK EGONKOR JARRAITZEN DU


Uztaren jeitsierak eragina izan du 50.000 litro baino gehiago ekoizten duten upategi multzoan. Upategi gutxiago daude orain eta ekoiztutako txakoli kopurua era murriztu egin da. Erregistratutako upategi kopuruak egonkor jarraitzen du.

Azken urtean upategi bat Deituratik atera da baina bi eskaera daude sartzeko. Gaur egun bi hauek HAZIren ebaluazio prozesuan daude.

3 KOADROA. UPATEGI KOPURUA EKOIZPEN KOPURUAREN ARABERA (litroetan)

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
>50.000	8	11	7	11	13	13	11	9
50.000-20.000	9	8	9	8	8	6	8	9
20.000-10.000	15	10	4	7	6	7	6	5
10.000-5.000	4	3	7	5	8	6	6	3
<5.000	14	17	17	13	8	9	8	11*
Sin declaración		2	4	2	2	4	-	3
Total	50	50	49	46	45	45	39	40*

* Deiturara sartzeko eskaera egin duten eta Kontrol Erakundearen ziurtapen agiria itxaroten dauden bi upategi sartzen dira koadroan



TXAKOLIN ZURIA DA BIZKAIAN GEHIENGOA

Txakolin zuriak Jatorrizko Deituraren ekoizpen nagusia izaten jarraitzen du, eta beste motatako txakolinen ehunekoak antzera jarraitzen dute.

Aurten eguraldiak erraztu egin du ontzea, eta zurien garrantzia pixka bat jaitsi da gorrien eta beltzen aurrean. Hauek bolumenak mantentzen dituzte, eta, ondorioz, Jatorrizko Deituraren barruan bere pisua handitzen dute. Beltzak arrosarekin duen aldea mantentzen jarraitzen du, bolumenean hirukoiztu egiten baitu.

Aurreko urtearen kontrara, Uzta Berantiarreko Ardo Bereziak izan dira udako azken zatiko egoera klimatologiko ona gehien eskertu dutenak, eta hori dela eta, bolumena eta pisua handitu dute Jatorrizko Deituran orokorrean. Izan ere, aurten, epigrafe honetan izena emanda dauden lau upategik ardo berezi hau egin dute.

4 KOADROA. BIZKAIKO TXAKOLINAREN EKOIZPEN MOTAK (hektolitroetan)

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
ZURIA	9.912,15	15.489,03	17.678	18.013	15.786	12.140,85
Gutzizkoaren %	98,88	98,22	98,68	98,66	98,94	98,41
GORRIA	22,38	119,07	40,35	47,08	35,07	34,75
Gutzizkoaren %	0,22	0,76	0,23	0,26	0,22	0,28
BELTZA	59,75	88,24	131,04	163,76	112,1	112,98
Gutzizkoaren %	0,6	0,56	0,73	0,90	0,70	0,92
APARDUNA	0	10	15	15	15	10
Gutzizkoaren %	0	0,06	0,08	0,08	0,09	0,08
U.BERANTIARRA	30,81	63,30	49,7	18,25	7,30	38,5
Gutzizkoaren %	0,3	0,4	0,28	0,10	0,05	0,31

MERKATURATUTAKO TXAKOLINAREN MARKA BERRIA

2017/2018 kanpainan merkaturatutako txakolinaren bolumen osoak aurreko kanpainako hazkunde antzekoa izan du berriro ere, %5,86koa aurreko kanpainarekin alderatuta, guztira 15.800,25 hektolitro, Jatorrizko Deituraren beste errekor bat suposatu duena.

Igoera hori barne merkatuaren eta, batez ere, kanpoko merkatuaren hobekuntzari esker gertatu da, batez ere, %42,33 hazi baita kanpoko merkatuarena

5.KUADROA. MERKATURATUAREN EBOLUZIOA

	2012-13	2013-14	2014-15	2015-16	2016-17	2017-18
ZURIA	14.050	12.931,82	14.202,81	14.258,89	15.183,78	15.800,25
GORRIA	57,22	63,29	44,51	106,53	14,74	49,65
BELTZA	64,61	47,93	32,48	48,71	52,71	68,18
APARDUNA	1	6,42	1,58	10,31	10,08	
BARNE GUZTIRA	14.171,83	13.062,24	14.281,38	14.424,34	15.261,31	15.918,08
KANPO GUZTIRA	469,79	409,71	498,07	429,73	447,20	674,71
GUZTIRA	14.641,62	13.471,95	14.779,45	14.854,07	15.708,51	16.592,79

AMERIKETAKO ESTATU BATUAK, JAPONIA, HOLANDA ETA ERRESUMA BATUA BIZKAIKO TXAKOLINAREN KANPO MERKATU NAGUSIAK DIRA

Kanpoko merkatuari dagokionez, Japoniako salmenten hazkunde nabarmena nabari da, bigarren merkatu garrantzitsua dela baieztatuz, nahiz eta Estatu Batuak ere merkatu nagusi bezala berresten diren, esportatutako txakolinaren guztizkoaren %43,56 arekin.

Europar Batasunak atzera egiten jarraitzen du esportazioen zerrendan, eta kanpoan saltzen diren txakolin guztien % 18,94 suposatzen du gaur egun.

Kanpaina honetan hamaika upategi izan dira txakolina gure mugetatik kanpo merkaturatu dutenak, nahiz eta horietako lauk esportatutako guztizkoaren %80,21a batzen duten.

Uzta berantiarreko ardoen salmentek emaitza onak ere izan dituzte azken urtealdian.

6 KOADROA. HERRIALDE INPORTATZAILEAK. (Hektolitrotan)


HERRIALDEA	2012-13	2013-14	2014-15	2015-16	2016-17	2017-2018
AEB	351,63	242,11	318,29	255,56	197,17	293,94
JAPONIA	31,5	27,90	33,45	22,73	26,01	141,28
HOLANDA	9,26	9,35	24,35	13,14	36,63	17,34
E. BATUA	20,51	20,41	45,69	45,63	71,88	53,42

TXAKOLIN SARITU ETA GORAIPATUAK

BIZKAIKO TXAKOLINA Jatorrizko Deiturak bere barne dauden txakolingileek ekoiztako ardoaren benetakotasuna zaintzen du. Bere izenpean etiketatutako Txakolinak kalitate baldintza zorrotzak betetzen dituela bermatzen du ekoizpen prozesu guztian zehar, mahastitik hasita, beti 400 metrotik beherako lurraldeetan, botilatze prozesuraino.

Arreta berezi honi esker Bizkaiko Txakolinak kalitate handiko ardo baten aitortpena lortu du. Historian zehar asko eta asko izan dira Bizkaiko Txakolin saritu eta goraipatuak hainbat lehiaketetan, etxean nahiz munduan zehar.

Hurrengo koadroan 2018 urtean zehar 6 upategitako 13 marka saritu agertzen dira



7.KOADROA. 2018an SARITUTAKO TXAKOLINAK

MARKA	UPATEGIA	SARIA
ITSASMENDI 7, 2015	Itsasmendi Upategia	Nacional Pequeñas DOs Medalla de Plata
ARIMA, 2015	Gorka Izagirre Upategia	Internacional Mundus Vini Medalla de Oro
GORKA IZAGIRRE, 2017	Gorka Izagirre Upategia	Internacional Mundus Vini Medalla de Plata
IEUP, 2017	Magalarte Lezama Upategia	Concourse Mondial Bruxelles Medalla de Oro
ARIMA, 2015 VT	Gorka Izagirre Upategia	Concourse Mondial Bruxelles Medalla de Plata
ARIMA, 2015 VT	Gorka Izagirre Upategia	Decanter Medalla de Oro
ADOS BASARTE, 2017	Basarte Upategia	Decanter Medalla de Bronce
DONA BASARTE, 2017 TINTO	Basarte Upategia	Decanter Medalla de Bronce
AGIRREBEKO, 2017	Berroja Upategia	Decanter Medalla de Bronce
G 22, 2016	Gorka Izagirre Upategia	Decanter Medalla de Bronce
ARETXABALETA, 2017	Magalarte Zamudio Upategia	International Wine Awards Medalla de Oro
MAGALARTE ZAMUDIO, 2017	Magalarte Zamudio Upategia	International Wine Awards Medalla de Oro
MAGALARTE ZAMUDIO FB, 2017	Magalarte Zamudio Upategia	International Wine Awards Medalla de Oro
MAGALARTE ZAMUDIO FB, 2016	Magalarte Zamudio Upategia	International Wine Awards Medalla de Plata
ZABALONDO, 2017	Magalarte Zamudio Upategia	International Wine Awards Medalla de Plata
MAGALARTE ZAMUDIO FB, 2016	Magalarte Zamudio Upategia	Premios Vinduro Vindouro Medalla de Oro
ARTIZAR 2013	Itsasmendi Upategia	Zarzillo de Oro Medalla de Oro